


# gure pekatuaren saria, Kristoren eriotza



# Kristoren eriotzaren irabazia, gure bizitza-barria

“Pekatuaren saria, eriotza”

Paradisuan, gure lenengo gura-soak illezkorrak ziran, baiña ilezinezza ori ez jagoken berez edo bere izatez, Jaungoikoaren borondatez edo gurariz baiño. Ilgo ez baziñan, Jaungoikoak olan gura ehalako izango zan. Baiña pekatu egitean, gizona bere Egillearen aurka jeiki zan; inñes egin eban Jaungoikoaren eskuetatik, eta antxe... bakartade orretan, aurkitu eban eriotza.

Pekatuak eta eriotzak dauken zer-ikusia ez da jazorizkoa bakarrik. Batez be, izatezkoa da. Gizonaren izadiak, bere Egillearen maitasunagandik urrun, ezin dau ezin-ik. Pekatua, orregaitik, gizadi osoaren eriotza da.

Guztiok il bear gara, lenengo gurascen pekatua gizadi osoaren pekatua izan zan-eta.

“Gure orde z pekatu egin dau Aitak pekatu ezagutu ez ebana, onegan guztiok Jaungoikoaren justizia euki daigun” (II Kor. 5, 21).

Kristoren kurtzeko eriotza bearezkoa zan. Bearezkoa, ez gure pekatuaren gaiztetasuna neurri-bakoa izan zalako, baiño gure pekatuaren zorra Aitari ordainduteko, derrigorrez BAT egin bear zalako gizadiaren zoriagaz eta, beraz, baita eriotzeagaz be. Bestela, bere ordainketak ezaban ezer-be baiñoko guretzat. Bestela, Kristok ez ginduan gure barriz erositiko.


Pekatua, Jaungoikoarenenganako gorrotoa dan ezker, maitetasunez garbitu bear da. Onegaitik, Kristok jasotako kurtze-eriotzean, eriotzak berak baiño geiago errukitu bear gaitu Kristoren maitasunak. Kristok, izan be, maitasunagaz salba gaitu.

Kristiñanak be, maitasunez eroan bear dau bere kurtze-bizitza.

“Kristo berbiztu ez bada, gure siñismena utsa da (I Kor. 15, 17). Kristok illobitik urten ez baeban, zertarako baiñoko eban bere eriotzak? Kristo oraindik ilda badago, Kristok eriotzan amaitu badau bere bizitza, zergaitik biziko gara gu eriotz ostein? Ez, Kristo berbiztu ez bada, gure bizitzak be amai ori eukiko dau: illobia. Baiña, ez. Kristo berbiztu egin da.

# ANAITASUNA

IX URTEA N.º 100  
Dep. Legal SS. 1092-1959  
Suplemento de la hoja  
Anaitasuna de Guipúzcoa  
APRILLA (4) 1963



## PIO XII-GNAK DIÑOSKUNA

Plazakoekez batera jotea egunean bizitzea, dana jakitea. Baserritar askoren bularrean dagon gauza auxe. Ta pozgarri dan gertakizuna. Jakituriaren egarria daroe gaurko baserriak. Animako balioak estimatuten dauan baserritasuna, inportantzi aundikoa gaurko egunetan. Ona ta zuzena da, ba, asmo eder oneek zirikatu ta aurrera eroatea. Ona emen, Pio XII-gnak baserrien kulturari buruz emondako iru zuzen bide:

1.—Ezagutu baserri-bearrak. Esan bat da baserrietan lurak egiten dauala dana; baiña baserritarrak ondo dakie lurak emoteko, buruaren bearrizana dagoala. Ez dago ez gari ta ez artorik, soloan izerdi ugari ixuri barik. Garia izateko alegin aundiak egin bear. Gaurko jakintz barriak aurrerapen aundiak argitaratu dabez, gizonaren alegiñak lurraren indarragaz alkartuteko. Bear-bearrekoa ondo ezagutu ta zarraren orde ipintea. Onek esan gura dau, ezin dogula gaur jokatatu asabaren erramintakaz. Batez be, gazteek izan bear dabe lenengoak ezagutz oneetan. Eurak dira baserriaren itxaropena.

2.—Soziedadearen zatia gara. Baserriko bakartasunak garoaz lagunartetik aldendutera ta gure kontzientzian kalekoak baiño zeozer gitxiago garala siñiste. Ez dago gauza okerragorik. Labrantza da emen nazioko bizitzaren nerbioa, ta baserriak beti emon dauz gizon ospetsuak. Santu ta politiku asko daukoguz. Baiña arrisku txiki bat daukogu: norberetasunean sartu ta lagunurkoari bazterrean itxitea; gure mendi tar-tean itsutu ta mundu zabalari ez begiratutea. Jaungoikoaren agindua barriz, lagunurkoa

gaz kolaboraziñuz bizitzea. Danak alkartuta gura gaitu. Ez dira gure begiak geure lur eta baserriak ikusteko bakarrik; geureak, auzokoenak ta mundu guztiarenak begiratuteko baiño.

3.—Sakondu gure kristiñaufasuna. Kristiñaufasunezko formaziñu on baten egarria dauko baserriak. Txikitan ikasitako dotriñagaz bakarrik gabiltz geienak, iñon sakondu barik. Istrusiñu on baten bearrizana dago. Alaiagoak izango giñake Jaungoikoa ta baserria alkarturik ikusiko bagenduz. Egunero ikasi bear dan kristau-ikasbide on bat, Biblia bat eta egunean jarriten gaitun errebista bat derrigorrezkoa jaku. Ez euki bakarrik; ikasi, ta batez be bizi. Onetarako gogoan artu abadeen irakaspenak; eurenk dira, Kristoren berbetan "lurreko gatz eta argia". Kultura eukiteko be barruko iridarra bear da. Ezta berezkoa, ta izerdia da biderik ederrena.

**Baserriari**  
**iru**  
**irakashizun**

# ERLIJĪŅUA TA FORMAZIŅUA

Formaziņuaren asiera, auspena ta azkena Jaungoikoa da; alan esan genduan joan zan illean. Ez dot uste, ostera, ondo esanda da goanik, edo, beintzat, afirmaziņu osoa danik:

Jaungoikoa ez da formaziņuaren asiera, auspena ta azkena bakarrik; Jaungoikoa gizonaren bizitza GUZTIAREN asiera, auspena ta azkena da.

## GIZONAREN BIZITZA MUNDUA BAIÑO ARANTZAGO DOA...

Gizona ez da mundu onetarako egiña; obeto esanda: gizona ez da mundu onetarako bakarrik egiña. Gizonaren izakera berberak beste mundu bat eskatuten dau. Gizonak mundu au beste mundu batera joateko bidetzat artu bear dau. Askotan, egia esan, mundu onetan eroan bear dan bizitzari ez deusagau bear dauan jaramonik egiten; au txarto dago; mundu onetako bizitzak be bere inportantzia bear dau. Bear bada oraiharre pulpituetatik, papeletatik, t. a., mundu au gaiztoegizat euki dogu; mundu onetako

gora-berak be Jaungoikotu egin bear dira ta Jaungoikoarengana joaten lagundu bear deuskue; “ez zerurik mundu bage, eta mundurik zeru bage”.

Baiña, gizonaren joera edo elburua mundu au baiño urrunago dago. Gizon guztiak Jaungoikoaren deia daroe barruan. Lengo illean gizona Jaungoikoarengandik sortua dala esan genduan. Ori egia bada —egia da, siñistu, gazte!— ez da miraritzekoa Jaungoikoarengan gure joera eukitea. Gure barruan Jaungoikoaren GOSEA daroagu!

## ERLIJĪŅUA DA JAUNGOIKO-GOSE ORI ASETZEN DAUANA

Jaungoiko-gose ori ez dau gizonak asmañu, Komunistak alan esan arren. Gose au anen-gurasoengandik dator. Mundu onetako gizon guztiak sentidu dabe gose au. Gose au ez dabe ez abadeak, ez frailleak, ez... Kristo-k inbentatu pobreak engañatzeko, ez; Kristo mundura etorri baiño len, gizonaren barruan Jaungoiko-gosea egoan. Gose au danak eroan dabe barruan, eta danak eroango ilabe, danak. Ez dago ez komunistarik, ez materialistarik, ez fedebakorik gose au ez daukanik! Kruschov, jaun altsuak Berlin-go “komunisten batzar-nagusian”: “. . . ez dogu siñistuten ez Jainkoarengan, ez deabruarengan”... esan arren —gizajoa!—, Kruschov berak be, aitu ondo, irakurle, Jaungoikoaren gosea daroa bere barruan! Bestela, ori ez ehan esango...!

Zelan erantzun, bada, Jaungoiko-dei onetari? ERLIJĪŅUAREN bitartez.

Gizona beti izan da “animali erlijijidun” bat. Kristo etorri baiño len existidu da erlijijñua; eta ez Israeldarren tartean bakarrik, munduko beste egal guztietan existidu diran gizonetan be bai. Beti existidu da Erlijijñua. Beti alegindu da gizona bere Barruan daroan Jaungoiko-gose ori asetutzen.

Guk be, geure barruan daroagun Jaungoiko-gose ori beteten alegindu bear gara. Gu, Jaungoikoari eskerrak, Kristo-ren erlijijñuaren jarraitzalleak gara. Baiña, Jarraitzalleak izatea ez da naiko; erlijijñua ez da Kristo-ri jarraituteko edo beste mundura joateko “firma” bat botatea, ez; Erlijijñua bizitza da, eta bizitza danezkero, bizitza orretan formatu egin bear gara.

Alegindu zaitetz, gazte, erlijijñu kontuan sustraitik formaten.

# Udabarria



Lore pipillak: eldu da Udabarria!  
Zelaiak, solo-motak, dana asi da barrizta-  
tzen. Etorri jako izadiari jagitzeko ordua.  
Bizitz barriaren poza eta edertasuna artzen  
da nun-nai.

Zabaldu da zerua eta argitu egin da lu-  
rra: egun-argitze ikusgarriak eta illuntze  
epelak; danean udabarria.

Eta ze ederra dan bizitza barria, edur az-  
pitik urtetea!

Etorri da udabarria arbola eta txorien-  
tzat, erreka eta zelaietzat, kirklil eta piz-  
tientzat. Etorri jako gizonari bere udaba-  
rria? Biziro ardura deuskun itaunea; berez  
datorrena.

Azterketa apur bat egiten badogu, zer  
ikusten dogu? Lengo inkonprenziñuak, lengo  
eztabaidak, lengo mugak, lengo betondo,  
otzak gizonen artean, gure artean. Eta beti  
lez, edo trenean, edo elizan, edo kalean gure  
ondoan dagoan orreri ez deutsagu berbarik  
egiten, ez deutsagu interesik artzen; ez ba-  
litz legez bizi gara bere alboan. Eta udaba-  
rri onetan bertan, gu lango 10 milloi ume,  
andra eta gizon ilko dira goserik (10 milloi  
izen, 10 milloi apellidu, 10 milloi lagun, 10  
milloi senide, 10 milloi ezagun!) Eta beste  
aldetik, an edo emen, ainbat diru joango  
dira banketetan, jolasetan, bonba ikaraga-  
rriagoak asmatzen.

Ez, ez jako etorri oraindik gizonari bere  
udabarria. Udabarria bizitz-barria da, poza,  
barriztazerako deia, epeltasuna. Eta gure  
alkar-emonak izoztuak, otzak dira oraindik.  
Negupean gagoz oraindik.

Danok (gizon, andra, ume ta zar) alkar-  
anaitasunean besarkaturik, alkar lagundu  
eta jasoten gareanean, orduan izango da  
gure artean bakea eta argia, orduan etorri-  
ko jako gizonari bere udabarria.

Noiz amaituko da Konziliua?

—“Konziliua ez da amaituko egundo be”, esan dau Leger kardinalak.

Garai bat zabaldu dau Konziliuak Elizan. Konziliu au ez da izango ekitalditxo  
bitan beteko dan zeregiña; ez da mai gañean asi eta amaituko dana. Erromako ekital-  
diak banatzen diranean, orduan asiko da Konziliuaren zeregiñ aundia: Eliza barru-  
barrutik barriztaztea.

Zergaitik? Konziliua gizadi osoari begira parau dalako; Ruan-go arzobispuak diño-  
an legez, Konziliuak ispiritual indarrak neurtu deutsozalako gizadiari; ispiritual bea-  
tasun guztieri erantzun zabal eta trebea emoten alegindu nai daualako.

Eta gizadiaren beartasunak aundiak dira. Ogei gizaldi ba-dira Kristo etorri zala  
eta oraindik

—iru gizonetik bik ez daukee Kristoren barririk,

—bi gizonetik bat Asia-tarra da eta Asia-n ia entzun be ez da egin oraindik  
Kristoren deia. Eta 50.000 jaiotzen dira egunero kristau ez diranen artean.

—iru gizonetik bat Jaungoiko-ekko estadupean bizi da,

—bi kristauek bat katolikua,

—iru gizonetik bi goserik dagoz.

Konziliua mundu osoari begira dago. Danok gagoz Konziliuan; danok gagoz Kon-  
ziliuaren buruasteetan. Eta buruastu oneek ez dira aurten erabakiteko lakoak, ezta  
urrengoan be.

“Konziliua ez da amaituko egundo be”; Konziliu au eta Elizaren asmoak, buru-  
asteak eta barriztatu-naiak bat egin diralako.

Eta Konziliuaren eginkizuna, Elizaren eginkizuna, danon eginkizuna!

“INCUNABLE”-TIK

KONZ  
EZ DA  
AMAI  
EGUN

100  
EUN  
100

Irakurlé:

Eskuetan daukozun ANAITASUNA-ren alea 100-garrena da. Atsegin al jatzu aldizkaria?

Ez? zergaitik, orduan, ez deuskuzu apur bat idazten, zure ustea azalduaz?

Bai? zergaitik, oster, ez dituzu egiten suskritoze barriak?

Eskerrik-asko! orain-arte emon deuskuzun laguntziño guztia-gaitik, baiña zeozer geiago egin zeinkela iruditzen jaku.

# EGO-AMERIKA LARRI



\* Au dala-ta, landatar jentea erri aundietara doa. Chile-ko Santiago-ra 40.000 lagun eltzen dira urtero, eta Buenos Aires-era milloi bat urte onetan.

\* Baiño, ango bizitza ez asko ohea. Problema barri bat sortuten da erri aundietan: bizi-lekurik eza. Erritar barri oneen artean 100-ko 88 errukarri bizi dira benetan, eta beartasan gorrienenan.

\* Era onetako bizitzan, gizontasunaren eta moralidadearen arriskuak neurri bageak izan bear dabe derrior.

\* Eskola premiña ikaragarria dago. 10 urtetik gorako analfabetuak 100 milloitik gora dabiltz. Ondorengo: errez eta begiak itxita jarraitzen jako zeozer dakian edonorreri.

\* Unibersitariuak: 350.000. Ia erdiak, 150.000, Argentinatarrak dira.

\* Ego-Amerika: lur barri eta aberatsa; almen aundikoa, baiña oraindik asten dagoana. Ardura aundikoak ditu urte oneek bere bizitza guztirako. Nundik-norako bideak artuko ditu? Komunismua ez da izango azken itzartuko dana.

\* Estadistika oneek "Secretariado Interamericano de Acción Católica"-k eratuak dira. Aor dagoz guztion gogarterako. Ez da bertanbera lagateko gaia.

\* Ego-Amerika problemaz josirik ikusten dogu gaurko egun onetan. Susmatu eziñezko aberaztasunak daukoz oraindik lurpean; lurrerik emoilleenetarikoa seguru asko. Baiña, gaur egunean, ez dago bazterrik Ego-Amerikan gosca ezagutzen ez danik. Asko dira, eta era guztikoak, bertako sozial problemak.

\* Biztanleak: 200 milloi, gaur. Emendik 15 urteera 300 milloi, jakitunen ustean.

\* Lur-azala: 18.734.560 km2.

\* Lurrak zatibanatzea da prolemarik aundienetarikoa. Biztanle erdiak baiño geiago landetan, kanpoan, bizi dira: 30 milloi dira biargiñak. Oneetatik, 24 milloi dira lurrik ez daukeenak. Biergin oneek jaun aundien mende dagoz, ifioiz ezer eukiteko itxaropenik bage. Ondorengo: 24 milloi biergin eta euren familiak (100 milloi inguru danetan) beartasunean, mixerian bizi dira.

*Egia da, gizon-itxura daroagunok, gurez, lurrera eta aragira jotzen dogula. Eta... ez gero indar gitxiagaz! Prolema au erabakitea ezta ain gauza erreza. Ez orixe! Batez be gaztaroan, zelako zarladak!*

*Eta gurasoak semeen garbitasunaren proplemiagaz aurkituten dira sarri-askotan. Zelan atera korapillo motrollotsu onetatik?*

*Enoa problema gatx ori erabakitera, ez, baiña kontzeju batzuk emon naikezelakoan nago.*

\* Arduratu zaitez, zuen semeak janari kilikagarriak ez daiezan artu. Al badozue, jateko ordu fiju bat jarri. Eztaitezala oeratu jan eta lastertxu.

\* Ume bakoitzak euki daijala bere oea, Mutillak eta neskak kuartu batean eztaieela lorik egin. Oean bero larregi eztaieela euki eta koltxoiak bigunegiak eztaitezela izan.

\* Itzartuten diranean jaiki daitezala arinarin, agindu bear jake. Oean ezta bear nagikeririk. Eta kontuan euki bear dozue, gurasoak, zuen semeen jantzien nasaitasuna, batez be semearen gaztaroan. Eztira bakarrik "luzatu" bear, baita "zabaldu" be.

\* Ez permititu kontugabekotasun bat be jantzien dezentetasunean.

\* Ez sartu etxean periodiku, errebista eta dibuju lizunik.

\* Umetxoan aurrean ez egin berba ain gordin-gordin ganaduen txal-egitetzaz eta beste

## Gurasoak eta semeen garbitasuna



Irribarre zabala eta begi garbiak. Barrua zuri dagonean gorputz dana argitzen da. Garbitasuna bizitz alaiaren iturria da.

- \* Frailleak "Naviera Vizcaina"-ko kapellau
- \* Elizari bide barriak irigiten
- \* Animak petroleruak baiño geiago balio dabe

# itxasoko prolemak aztertuten

Oraindiño oraintsu ikusi doguz gure periodikuetan iru-lau artikulu Espaini-ra petroleua igaroten dabiltzan Euskaldunentzaz. Ezot gura nik emen barri ori emon; ori periodikuen biarra da. Nik, erabilli gura dotana, artikulu areek ekarren barria beste alde batzuetatik begiratutea da, ze askotan, batzuk, barriagaz bakarrik geratuten dira sustraietaraño sartu barik.

Lenengoz, kapellaua derrigorrezko barruko lagun bat lez "Naviera Vizcaina"-ko petroliuetan ikusten da. Barri ederra auxe, baiña orain arte landa onetan gitxi egin dala diñoskun barria be. Lantzian bein eta gitxi gorabera, ba-doaz batzuk —esango da— baiña lantzian bein eta gitxi gora-berako biarrak arrisku bat dauke; ezer ez egitea. Naviera au ez ezik, zenbat petroliu dagoz? Eta bezte klase ta moduko barknetan, zenbat kapellau dagoz barruko lagun baten nortasunagaz? Gaurko barkua erri bat dala esan geinke ta erri batean gizonaren naitasun guztiak beteteko erreztasunak dagozan lez, alan barkuan —bakotxari berana emon da— gizonak bere beartasuneri erantzuteko dana euki bear dau.

Barkua, ba, itxasoko erri bat bada, ezin ezta Jaungoikoari jagokonaz. Esango dau ñok, eztagozala apaizak edo kapellauak ain

gauza txiki batean gastateko moduan, Eliza ezjala bazter orretan sartu bear. Gauza txikia da barku bat, egitan, beste gauza askogaz konparaten badogu, baiña berrogei ta amaika anima eztera gitxi Elizarentzat ezta txikiak be. Elizak, komunista izanda be, ezta aztertuten inor.

Txarto entenitutako komunismuarentzat eun lagun be ezira ezer. Elizarentzako bat naiko da, ta bakar ori salbatu bear dan tokian, antxe dago Eliza. Gaiñera petroliu onetan ikusi danez, itxas-gizonetatik asko euren bakar-aldietan apaiz baten egarri dagoz. Biotzez esandako berbak dira oneek.

Beste leku askotan lez, Elizak beste problema bat dauko ementxe. Baiña asita dagon gauzea, erdi egia.

olako guazetzaz. Erretz pentzaten dogu umeak euren jolasetan dabiltzanean ezteuskue- la ezer be entzuten. Kia! Orduantxe dagoz oraintziño geienagaz euren gurasoen berbatal- dia entzuten. Augaitik, ba, kontuz zuen ba- laezpadako berbaldietan!

\* Begitu ondo zuen semeen lagunak nor- tzak diran.

\* Ez itxi esku-jolasetan edo maite-min bi- ztegietan ibiltzen.

\* Jakin noregaz doazen eta datozen esko- laik.

\* Baiña kontzeju guzti onekaz ez pentza zuen semeentzate polizi edo txapel-okar batzuk

lakoak izan bear dozenik, ez; gauza guzti enetzaz zeozer preguntetan deusuenen, eran- zuen semeak koskortuta dagozanean, ezin izan- do dira aplikatu. Gai onek maillak daukoz eta ezta komeni umea oindiño txiki-txikia dan- nean azkenengo mailletan ipintea. Mutiltxoak koskortuten danean, gauza koskorragoak sartu leikioz.

\* Azkenengo kontzejua: zuen semeak gai onetzaz zeozer pregutetan deusuenen, eran- tzun, erantzun beti egiagaz. Baiña egi onek eztauko ain gordin-gordina eta argi-argia izan bearrik. Zeuek jakingo dozue zelau neurtu gertaera bakoitzean.

\* Eta batez be, erregutu Jaungoikoari zuen semeen alde.

“Biarreko ordu normaletan (eta bateri jagokon medidan!) biarrean diardun biargiñak, justiziaren eta bateri zor jakon errespetoaren izenean, errazoiagaz eta zuzen eskatu daike beraren on-bearrak eta erresponsabilidate guztiak bete-teko-beste sari edo jornal”. (Pio XI'nak).

## biar-sari txikiena edo jornal bajuena-ri buruz

“Prolema sozial” egite onetan inportantzi aundiena daukon kuestiñoia soziedade-mailla guztien artean benetako anaitasun-sua biztutzea da. Maitasun onek gauza asko konponduko leuskiguz... Baiña edozelan be, salario edo biargiña bear dan eran sarituteko prolema onek ikututen gaitu geien. Obre-ruaren bizia da-ta!... ainbat arifien soluzionatu bear da, ba, au. Tajuzku biar-sari barik ez dau familiarik, ez...

• **Egia nai badogu** eta guzur zaleak ez bagara, leku askotan gaur bertan emoten diran jornalak barregarriak dira. Berrogeta-bostekoak!... Lotsagarria.

Eleizaren dotriña garbian argi eta garbi agertuten da gizonaren biarra ez dala edozein saldu-erosiagaz neurtu bear. Ez. Aita Santuak diñoskuen legez, gure biarra ez da diruarekin pagatuteko. Obre-ruaren biarra ezin daiteke traste edo makiña batenarekin bardindu iñoz, euren ezbardintasunak one-lako konparaziñorik ez dabelako ametidutan. Orregaitik gizonaren biarra ezin leike inok erosi tratu batean, norberak nai daben era-ra. Au gizona ber-bera saltzea edo erostea litzake, eta ba-dakigu kristiñau artean gala-zota dagoala au! Ezin daikegu. Menpekeria edo serbidunbrea sasoia da Eleizak madarikatatu ta proibitu ebala. (Quadragesimo anno)

Aita Santu Pio XII'nak ezin obe esaten

deusku: “Gizonaren biarra bere bizia da, eta gizonaren bizia bada, ezin leike iñok bera erosi edo edozein moduan erabili. Orregaitik edozein gizonaren biarra bizitzak eskatuten daben neurrian saritu bear da gitxienez dignidate eta justizia garbian”. (Disc. 3-6-1950). Eta ainbeste emon ezin daben biarra, au da, rentable ez bada, eliminatu ta kitu!

**Biar-sari** edo “salario minimo” onek iru semedun familia tajuz mantentzeko neurri-koa izan bear dau. Sari bajuen au merezidu ez daben biar-klaserik gizonen artean ez dogu ikusi bear; gizonaren biarrak ondo balio dau bizitzako bear-izanak ordainduteko-beste. Bai.

Ta “salario minimo” au lortuteko ugazabak eta biargiñak biak euren bete-bearrak propioak ditue.

Ugazaben aldetik biargiña beti neurrit saritzea da agindurik nagusiena; eta obre-ruak barriz rendimendu normalagaz ekin bear deutso biarrari.

Eta obligaziño onek zietz beteten, badoguz beingoan agertuko jaku udabarrira: Gizonaren eskubide nagusiak eta deretxoak ez dira geiago urratuak eta zapalduak izango.

**ELEIZA AMA  
SANTAREN  
ABOTSA**